

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ Gure inguruan baino hazkunde handiagoa, baina lan-suntsipen handiagoa ere
- ✓ 410 lanpostu galtzen dira egunean
- ✓ Sinatutako kontratuen %90,1 aldi baterakoak dira, oraindik ere
- ✓ Enplegu-etendurako espedienteak gero eta gehiago dira
- ✓ Lan-istripuak berriro ugaritu dira 2008an

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	ERREFERENTZIA TARTEA		12 HILE LEHEN.	2008 BUKAERA
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA				
JARDUERA TASA (%)	2009ko I. HIRUHILEKOA	73,6	73,4	74
JARDUERA TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	71,1	70,6	71,1
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	2009ko I. HIRUHILEKOA	1.211.400	1.276.900	1.248.300
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	2009ko I. HIRUHILEKOA	1.013.200	1.036.600	1.006.000
ALDI BATERAKO TASA (%)	2009ko I. HIRUHILEKOA	22,2	28,1	25,4
ALDI BATERAKO TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	13,8	14,4	13,8
BIZTANLERIA LANGABETUA	2009ko I. HIRUHILEKOA	140.300	77.700	113.700
LANGABEZI TASA (%)	2009ko I. HIRUHILEKOA	10,4	5,7	8,3
LANGABEZI TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2009ko MARTXOA	8,3	6,7	7,6
GAZTEEN LANGABEZI-TASA (%)	2009ko I. HIRUHILEKOA	29,3	15,8	22,6
GAZTEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2009ko MARTXOA	18,3	14,6	18,3
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA (%)	2009ko I. HIRUHILEKOA	11	7,2	9,3
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2009ko MARTXOA	8,3	7,3	7,3
SINATURIKO KONTRATUAK	2009ko URTARRILA-APIRILA	250.890	358.843	1.061.684
MUGAGABEKO KONTRATUAK	2009ko URTARRILA-APIRILA	24.318	37.441	97.006
ENPLEGU ERREGULAZIOA				
ONARTURIKO FITXAK	2009ko URTARRILA-OTSAILA	554	61	760
ERAGINDAKO LANGILEAK	2009ko URTARRILA-OTSAILA	22.337	671	23.833
LAN ISTRIPUAK				
ISTRIPUAK GUZTIRA	2008ko URTARRILA-ABENDUA	62.177	61.861	134.305
HILDAKOAK	2008ko URTARRILA-ABENDUA	103	108	103
ESKAINNTZA ETA ESKARIA				
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (% ALD.)	2009ko URTARRILA-MARTXOA	-24,1	0,6	-3,4
BPGa EAEn (% ALD.)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	0,4	3,8	3,8
BPGa NAFARROAn (% ALD.)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	0,3	3,4	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	-0,7	3,3	3,3
BPGa 27-EUOPAR BATASUNEAN (% ALD.)	2008ko IV. HIRUHILEKOA	-1,6	2,5	2,5
PREZIOAK				
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (%)	2009ko MARTXOA	-0,1	4,5	1,4
KPI 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2009ko MARTXOA	1,3	3,7	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.				
* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen buruzkoak dira. Bestela adin tartea zehaztuko da.				
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística.				
2009/05/07an eguneraturiko informazioarekin				
113. zbk. Egoeraren Azterketa 2009ko Maiatza				



Aurkibidea

SARRERA	3
EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiak hazkunde handiagoa izan du hemen, inguruan baino ...	4
2. 410 lanpostu galdu dira egunean.....	4
3. Aldi baterako lanpostuak suntsitzen jarraitzen dute	5
4. 295 langabetu gehiago egunean..	6
5. Sinatzen ari diren kontratuak aldi baterakoak dira oraino	7
6. Gero eta erregulazio-espeditente gehiago.....	7
7. Lan-istripuak berriro ugaritu dira 2008an.....	8
8. Deflazioaren aurrean, KPIa baino soldata-igoera handiagoak	8
PUNTAKO GAIAK	10
1. Lan-merkatuko 2007ko errolda	10
2. Europar Batasuneko azkenetakoak, gizarte-babesari dagokionez	11

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, Hego Euskal Herrian enpleguak urteko lehenengo hiruhilekoan izan duen bilakaeraren inguruan arituko gara. Hileko puntako gaietan, Lan Merkatuko Erroldari erreparatuko diogu, gizarte-gastuari buruz dugun informazio berriena jorratzeaz gain.

* Txosten hau 2009ko maiatzaren 7an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa


1. Ekonomiak hazkunde handiagoa izan du hemen, inguruan baino

2008aren erdialdeaz gero, ekonomiak ahultze orokorra izan du. Hala ere, bai bilakaerak, bai bilakaera horien ondorioak oso ezberdinak dira inguru batetik bestera. Ildo horretan, adibidez, Hego Euskal Herriko ekonomia Espainiako Estatukoa eta Europakoa baino portaera hobea agertzen ari da, ondorengo grafikoan ikus dezakegunez.

BPGd-aren urtearteko gehikuntzen **hiruhileko azterketak** ekonomiaren okerragotze orokorra erakusten du, 2007ko urtealdiaren hasieratik aurrera. Hala eta guztiz ere, abiapuntuko egoera zein azkeneko portaera are kaltegarriago suertatu zaizkie Espainiako estatuari eta 27 kideko Europar Batasunari, EAERI eta Nafarroari baino.

Era horretan, 2008ko laugarren hiruhilekoko urtearteko BPGd-a gutxitu egin da bai Espainiako Estatuan, bai 27-EBn (%0,7 eta %1,6, hurrenez hurren); Hego Euskal Herrian, aldiz, hazi egin da, gutxi bada ere (%0,3 Nafarroan eta %0,4 EAEn). Espainiako Bankuak zenbatesi duenez, 2009ko lehenengo hiruhilekoan BPGd-ak %2,9ko jaitsiera izango du Espainiako Estatuan.

BPGd-aren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (%).
27-EB, 2007-2008.



Iturriak: Eustat, NEI, INE, Eurostat

Urte osoko bilakaera ere onuragarriagoa izan da hemen Espainiako Estatuan eta 27-EBn baino (%1,2koa eta %0,9koa, ondoz ondo): EAEk

%2ko hazkundearekin itxi du 2008ko ekitaldia, eta Nafarroan, berriz, %1,9koa izan da gehikuntza.

Hego Euskal Herriko bilakaera **sektorez sektore** aztertzean ikusten denez, EAEn iaz izandako hazkundea zerbitzuen sektoreari zor zaio (%3,3 hazi da eta), gainerako sektoreak ia berdin geratu direlarik. Nafarroari dagokionez, zerbitzuen sektorea %2,9 hazi da, eta lehen sektorea, %2,3 (nahiz eta sektore horrek guztizkoan duen pisua %2,9koa baino ez den).

BPGd-aren osagaiei gagozkiela, batez ere administrazio publikoen kontsumoak ekarri du BPGd-aren hazkundea (atal hori %5,9 areagotu da EAEn, eta %4,5 Nafarroan). Zentzu horretan, esan behar da, ekonomia bultzatzeko, gastu publiko handiagoa egitea mesedegarria bada ere, Hego Euskal Herriko instituzioen hautua gastu publikoa herrilantetara bideratzea izan dela. Bestela jokaturik, aitzitik, zerbitzuetako gastu publikoak (hezkuntza, osasun, zainketa eta abarretakoak) modu eutsian eta jasangarrian indartuko luke ekonomia, herritarrei eman beharreko estaldurak hobetzeaz eta lanpostu iraunkorrak sortzeaz gain.

BPGd-aren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (%).
27-EB, 2007-2008.

	2007	2008
EAE	4,1	2,0
Nafarroa	3,8	1,9
Espainiako E.	3,7	1,2
27-EB	2,9	0,9

Iturriak: Eustat, NEI, INE, Eurostat

2. 410 lanpostu galdu dira egunean

Ondoren, enpleguak 2009ko lehenengo 3 hilabeteetan izan duen bilakaera aztertuko dugu.

Lanean dabilen biztanleria 1.211.400 lagunek osatu dute 2009ko lehenengo hiruhilekoan. Horrek esan nahi du 3 hilabete horietan 36.900 lanpostu suntsitu direla. Hortaz, HEHn, 410 lanpostu galdu dira batez beste egunean, aurtengo lehenengo hiruhilekoan zehar.


Hiru hilabete hauetan lanean ibili diren gizonen 679.300 izan dira (guztizkoaren



%56,1), eta emakumezkoak, 532.100 (%43,9). Enpleguaren bilakaeran generoak bereiziz gero, berriz, galdu diren lanpostuetatik 22.100etan (%59,9an) gizonezkoek ziharduten, eta 14.800etan (%40,1ean), emakumezkoek.

Sektoreka begiratuta, bestalde, zerbitzuetan 782.800 lagun (%64,6) ibili dira lanean; industrian, 295.800 (%24,4); eraikuntzan, 108.600 (%9), eta nekazaritzan, abelazkuntzan eta arrantzan, 24.300 (%2). Lanpostu gehien galdu dituen sektorea zerbitzuena izan da (19.500 lanpostu), eta, horren ostean, industria (11.200), lehen sektorea (3.200) eta eraikuntza (3.000). Beraz, hurrengo grafikoak agertzen duenez, hiruhilekoan suntsitutako lanpostuen %52,7 zerbitzuetakoak ziren, %30,4 industriakoak, %8,7 lehen sektorekoak, eta %8,2 eraikuntza-koak.

GALDUTAKO LANPOSTUAK SEKTOREZ SEKTORE (%). HEGO EUSKAL HERRIA, 2009ko I. HIRUHILEKOA



Iturria: INE

Urteko bilakaerak, ordea, ikuspegi ezberdina erakusten du, izan ere horren arabera 65.300 lanpostu galdu baitira: 25.700 (%39,5) industrian, 19.900 (%30,5) eraikuntzan, 14.500 (%22,2) zerbitzuetan, eta 5.100 (%7,8) lehen sektorean.

Jarduera-tasa %73,6koa izan da, 0,4 puntu jaitsi ondoren. *Generoaren arabera* bereizita, gizonen jarduera-tasa %81,4koa izan da (2008ko laugarren hiruhilekoa baino 0,4 puntu txikiagoa), eta emakumeena, %64,6koa (0,4 puntu baxuagoa, hori ere). Hego Euskal Herriko jarduera-tasa 27-EBkoa baino 2,5 puntu handiagoa da (Europar Batasunari buruzko azken informazioaren arabera, 2008ko laugarren hiruhilekoan, %71,1eko jarduera-tasa orokorra

izan zuen). Gizonezkoen jarduera-tasa 27-EBkoa (%78) baino 3,4 puntu altuagoa izan zen, eta emakumezkoena ere, Europan (%64,2) baino 1,4 puntu handiagoa.

3. Aldi baterako lanpostuak suntsitzen jarraitzen dute


Behin-behinekotasun tasa %22,2koa izan da 2009ko lehenengo hiruhilekoan. Generoko diferentziek bere horretan segitzen dute, tasa hori 10 puntu handiagoa baita emakumeen kasuan (%27,4) gizonenean (%17,7) baino.

Behin-behinekotasuna 3,2 puntu gutxitu da hiruhilekoan (3,3 puntu gizonen kasuan eta 3,1 puntu emakumeenean). Baina jaitiera horren arrazoa ez da izan aldi baterako lana mugagabe bihurtu izana, aldi baterako lan-kontratuak berritu ez izana baizik. Beraz, bistan dago aldi baterako kontratazioa enpresarien estrategia-aren osagaietako delat, horrela, azalpenik eman gabe eta inolako kosturik gabe kaleratu baititzaizakete soldatapeko langileak. 2009ko lehenengo hiruhilekoan, zehazki, 17.500 gizon eta 13.300 emakume gutxiago aritu dira lanean aldi baterako kontratupean; alegia, horrelako lanpostuen %83,5 suntsitu dira.

Dena den, *27-EBn*, behin-behinekotasuna nabarmenki txikiagoa da oraino: %13,8koa, hain zuzen ere, 2008ko laugarren hiruhilekoan (%12,9koa gizonen kasuan, eta %14,7koa, emakumeenean).

Bestalde, *16 eta 24 urte arteko* gazte kolektiboren behin-behinekotasun tasa %59,5koa izan da (aurreko hiruhilekoan baino 8,9 puntu txikiagoa), eta 25 eta 34 urte bitartekoena, berriz, %30,6koa (2,2 puntu baxuagoa). Datuok erakusten dutenez, gazte jendearen artean ere nabari da aldi baterako enplegua suntsitzen jarraitzen dutela.

BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OROKORRA, GIZONENA ETA EMAKUMEENA (%). 27-EB (2008ko IV. HIRUHILEKOA) ETA HEGO EUSKAL HERRIA (2009ko I. HIRUHILEKOA)



Iturriak: INE, Eurostat

4. 295 langabetu gehiago egunean

Langabezian dagoen biztanleria 140.300 lagunek osatu dute, hots, aurreko hiruhilekoan baino 26.600 lagun gehiagok. Langabezia suntsitutako lana baino gutxiago hazi izana biztanleria aktiboaren jaitsieraren ondorioa izan da. Gizon langabeak 74.200 izan dira (16.800 gehiago), eta emakume langabeak, 66.100 (9.800 gehiago). Datuon arabera, langabeen kopuruari beste 295 gehitzen zaizkio egunean batez beste.

Aldi baterako kontratua duten 30.800 langile gutxiago eta 26.600 langabetu gehiago egotea ez da kasualitatea. Aitzitik, goian esan dugunez, oraindik ere aldi baterako kontratuak ez berritzeko prozedura erabiltzen segitzen dute, enplegua suntsitzeko.


Langabezia-tasa %10,4ra igo da, eta emakumeenak (%11) gizonena (%9,8) baino handiagoa izaten jarraitzen du. Langabezia-tasak 2,1 puntuko igoera izan du 2008aren amaierakoa-rekiko (2,2 puntu, gizonetzkoen kasuan, eta 1,7 puntu, emakumezkoenean). Langabeziaren etengabeko hazkundearen eraginez, langabezia-tasa (%10,4) duela urtebetekoa (%5,7) halako bi da ia.

Ildo beretik, 16 eta 24 urte bitarteko kolektiboren langabezia-tasa %29,3koa izan da (hiru hilabete lehenagokoa baino 6,7 puntu altuagoa), eta 25 eta 34 urte artekoena, %11,5koa (1,1 puntu hazi da hiruhilekoan).

Orain arte ikusi dugunez, Hego Euskal Herriko ekonomiak gure ingurukoak baino portaera hobexea agertzen badu ere, alderantzizkoa gertatzen da langabeziarekin. Izan ere, 27-EBko langabezia-tasa (%8,3koa martxoan) 1,6 puntu besterik ez da hazi urtebetean, eta HEHkoak, ordea, 4,7 puntuko gehikuntza izan du urtean. Hurrengo grafikoa oso adierazgarria da, mintzagai dugun alderdiari dagokionez, zehaztutako aldiaren hasieran HEHko langabezia-tasa 27-EBkoa baino puntu 1 txikiagoa izanik ere, Europakoa baino 2,1 puntu gorago amaitu baitu aldia, hemengo ekonomiak portaera hobea izan arren.

Datuak generoaren arabera erkatuz gero, 27-EBko gizonen langabezia-tasa (%8,3) HEHko gizonena baino 1,5 puntu txikiagoa dela ikusten da, Europako emakumeena (%8,3) bertokoena baino 2,7 puntu beherako dagoelarik.

LANGABEZIA TASAK (%). 27-EB (2009ko MARTXOA) ETA HEGO EUSKAL HERRIA (2009ko I. HIRUHILEKOA)



Iturriak: INE, Eurostat

INEMek langabeziari buruz emandako informazioa aztertzean, egoera are okerragoa dela ikusten dugu, 160.570 langabe daudela –hots, urtebete lehenago baino %53 gehiago– ondorioztatzen da eta. Langabeen kopuruaren urte-arteke gehikuntza hori martxokoa (urtebete



lehenagokoaren aldean, %50,1ekoa) baino are handiagoa da.

Gogoratu, gainera, hiru lagunetik batek **ez duela langabezia-prestaziorik** kobratzen. Langabeen %47,5ek baino ez dute kotizaziopeko prestazioa kobratzen, eta %16,1i ematen zaie kotizazio gabeko prestazioa (bestea baino askoz urriagoa).

5. Sinatzen ari diren kontratuak aldi baterakoak dira oraino

Hego Euskal Herrian, 2009ko urtariletik apirilara bitartean, 250.890 **lan-kontratu** sinatu dira, hau da, iazko epealdi berean baino 107.953 gutxiago. Hortaz, sinatutako kontratuen kopurua %30 **gutxitu da**, lan-kontratazioan jazo den dezelerazio nabarmena agerian utziz.

Gainera, kontratu horietatik 24.318 bakarrik izan dira mugagabeak, eta 226.572 aldi baterakoak: alegia, aurtengo lehen 4 hilabeteetan sinatutako kontratuen %90,3 aldi baterakoak izan dira. Eta hori gutxi balitz, portzentaje hori iazko aldi berekoa (%89,6) baino handixeagoa dela kontuan harturik, sinatutako kontratuen guztizkoan aldi baterako kontratuei dagokien ehunekoa hazten ari da.

6. Gero eta erregulazio-espediente gehiago

2008an zehar baimendutako **erregulazio-espedienteak** 760 izan ziren, hau da, 2007an baino 251 gehiago. Beraz, %49,3ko gehikuntza egon zen.

Hurrengo taulan, erregulazio-espedienteen kopuruak 1999tik aurrera izan duen bilakaera ageri da. Bertan ikus dezakegunez, gehikuntza 2008ko ekitaldian jazo da batez ere.

BAIMENDUTAKO ERREGULAZIO-ESPEDIENTEEN KOPURUA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1999-2008

1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
369	352	436	423	518	545	526	392	509	760

Iturria: MTAS


2009ko **lehen bi hilabeteetan**, 554 **espediente** baimendu dira, hau da, 2008ko aldi berean (61) baino 493 gehiago. Gehikuntzaren tamaina bistakoa da.

Espedienteek 23.833 **langile jo dituzte**, aurreko ekitaldian baino 15.199 lagun gehiago, alegia. Era horretan, kaltetutako pertsonen kopurua %176 hazi da, hots, baimendutako espedienteen kopurua baino askotxo gehiago.

Kaltetutako pertsonen kopuruaren bilakaera espedienteen *tipologiaren arabera* aztertzean ikus daitekeenez, 20.706 laguni (%86,9) aldi baterako etendura-espedientea ezarri zaie; 3.037ri (%12,7), irazpen-espedientea, eta 90 langileri (%0,4), lanaldi-murrizketako espedientea.

Ondorengo grafikoan, 1999ko ekitalditik hona erregulazioko espediente mota bakoitzak jo dituen langileen kopuruaren *bilakaera* ikusten da. Lanaldi-murrizketako espedienteen kopuruak –pisu txikikoa– eta irazpen-espedienteenak jorria ia konstantea izan dute aztertutako aldian. Etendura-espedienteak, aldiz, harrigarriro biderkatu dira; horiexek, hain zuzen ere, igoarazi dute erregulazio-espedienteek jotako langileen guztizko kopurua, 2008an bereziki.

ERREGULAZIO ESPEDIENTEEK JOTAKO LANGILEAK, ESPEDIENTE MOTAREN ARABERA (MILAKOTAN). HEGO EUSKAL HERRIA, 1999-2008



Iturria: MTAS

Erregulazio-espedienteen guztizko kopuruaren gaineko informaziorik berriena **otsailari** buruzkoa da, eta baimendutako 554 espedienteren

berri ematen digu; hots, 2008ko aldi berean (61) baino 493 gehiago baimendu dira.

Hego Euskal Herrian, 22.337 izan dira erregulazio-espeditente horien ondorioak nozitu dituzten langileak; iazko aldi berean baino 21.666 lagun gehiago, alegia. Datuek erakusten dutenez, kaltetuen kopurua izugarri hazi da, eta dagoeneko 2008ko guztizkoaren parean dago ia.

Urteko lehen bi hilabeteetan, *espeditente mota bakoitzak jo* dituen langileen kopuruari erreparaturaz gero, sarriena etendura-espeditentea izan dela ikus dezakegu: 20.843 lagunek (guztizkoaren %93,3) nozitu dituzte mota horretako espeditenteen ondorioak; bigarren ugariena, berriz, irazpen-espeditentea izan da, eta 1.337 lagun (%6) jo ditu, eta gutxien ezarri den espeditente motak, lanaldi-murrizketakoak, 157 lagunengan (%0,7) izan du eragina. *Bilakaerari* dago-kionez, eta kaltetutako langileen kopuruaren araberrako ordenan, gehikuntzarik handiena etendura-espeditenteetan jazo da (2008ko lehen bi hilabeteetan baino 20.583 kaltetu gehiago), bigarrena irazpen-espeditenteetan (926 kaltetu gehiago), eta hirugarrena lanaldi-murrizketakoetan (157 gehiago).

7. Lan-istripuak berriro ugari dira 2008an

2008ko urtealdian, Hego Euskal Herrian baja eragin zuten 62.177 lan-istripu gertatu ziren, hau da, 2007an baino 316 gehiago. Bestalde, lan-istripu hilgarriak 103 izan ziren, hots, aurreko urtean baino 5 gutxiago.

Lan-istripu bakoitzak erabateko drama pertsonala, familiartekoa eta soziala dakar, baina ez ugazaberiak, ez administrazioak ez diote arazo horri aurre egin nahi. Batetik, ugazabek enpresa-mozkinak jartzen dituzte laneko osasunaren aurretik, eta, besteak beste, azpikontratazioaz, behin-behineko lanaz eta lan-erritmo trinkoez baliatzen dira euren asmoak betetzeko. Bestetik, administrazioek ezikusia egiten diete enpresen arau-hauste ugari, beraien konplize bihurturik.

ELAK, ekintza sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren bidez, laneko osasuna eta segurtasuna hobetzeko borrokan jarraitzeko asmoa du, ezegonkortasunari, behin-behinekotasuna-


ri, kateko azpikontratazioari, lan-erritmo gogorrei eta lan-istripuak eta gaixotasuna profesionalak gertarazten dituzten gainerako eragileei aurre eginez.

8. Deflazioaren aurrean, KPIa baino soldata-igoera handiagoak

Estatuko KPIak indize negatiboekin itxi du hilabetea; zehazki, -%0,1ean ezarri da, urtearteko zenbaketan. 27 kideko Europar Batasunekoak, aldiz, %1,3ko indize positiboan kokatu da.

Estatuko KPIa, 2008an zehar oso indize altuetara iritsi ostean (uztailean, %5,3ra heldu zen), beheraka hasi zen urte horren erdialdera, negatibora heltzeraino. Europako tasak, aitzitik, bilakaera motelagoa izan du; hori ere indize altuetara iritsi zen 2008an zehar (%4,4ra uztailean), eta nabarmenki jauzi da, baina balio positiboetan jarraitzen du oraindik (aipatutako %1,3an).

KPIak AZKEN URTEAN IZAN DUEN BILAKAERA. 27-EB - ESTATUA



Iturria: INE, Eurostat

KPI negatiboari, hau da, ondasunek eta zerbitzuek urtebete lehenago zuten balioari buruz izan duten prezio-jaitsierari, esaten zaio deflazio. Deflazioa inflazioaren kontrako mugimendua da. Eta oraingoan, historian lehenengo aldiz, deflazioa gertatzerainoko prezio-jaitsiera jazo da.

Teoria ekonomikoaren arabera, deflazioa kaltegarria izan daiteke, denboran luzatuz gero. Deflazioaren ondorioz, kontsumoa galgatu egin daiteke, kontsumitzaileek pentsa dezaketelako



hobe dela ez erostea, edo erosketak atzeratzea, etorkizunean erosi nahi den hori merkeagoa izango delakoan). Era berean, deflazioak inbertsio gutxiago egitea ere badakar, salmenta gutxiago daudelako, eta egiten diren salmentek diru-sarrera gutxiago eragiten dituztelako, prezio merkeagoen zioz.

Inork ere ez daki zer-nolako bilakaera izango duen KPIak 2009aren gainerakoan. Aurreikuspen batzuek luze joko duen deflazioa iragaritzen dute, beste batzuek erabat alderantzizkoa diotelarik. Beraz, jazotzen dena jazotzen dela ere, guk sindikatuaren ikuspuntutik egin behar dugu prezioetan gertatzen ari denaren irakurketa. ELAren iritziz, argi dago deflazioak ezin duela soldaten jaitsierarik ekarri. Ezin dugu soldata-deflazio onartu. Arrazoia sinplea da oso: soldaten murrizketak erosteko ahalmenaren murrizketak ere badira, eta horrek ekonomia areago geldotzea lekarke. Era horretan, soldaten deflazioak sakonago bihurtuko luke krisia. Horixe da, hain zuzen ere, munduko hainbat sindikatuk agertu duten kezka.

Hori dela eta, negoziazio kolektiboari begira, soldaten eta erosteko ahalmenaren hazkundea bermatuko duten politikak exijitu behar ditugu.



1

Lan-Merkatuko 2007ko errolda

I. Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak Lan Merkatuko Errolda (LME) argitaratu berri du. Erroldak EAeko lan-merkatuari buruzko 2007ko informazioa jasozten du, eta, besteak beste, biztanleria aktiboaren, lanean dabilen biztanleriaren eta langabezian dagoen biztanleriaren gaineko datuak biltzen ditu. Informazio hori Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren bidez aztertu dugu, horrek informazio gaurkotuagoa ematen digu eta.

Hala ere, LME delakoak beste iturri batzuetatik ezin lortu ditzakegu argibideak ematen dizkigu, hala nola batez beste jasotako diru-sarrerak. Informazio horren azterketari garrantzi handikoa deritzogulako aurkezten dugu hileko puntako gaien artean.

II. Batez beste jasotako diru-sarrerak, generoa eta adina kontuan hartuta

LMEk ematen dituen informazioetako bat jasotako diru-sarrei buruzkoa da. Erroldaren arabera, diru-sarriren batez besteko orokorra 1.300,1 eurokoa izan da 2007an; gizonezkoek batez beste 1.428,3 euro jaso dituzte hilean, eta emakumeek, berriz, 1.120,0 euro. Beraz, gizonen diru-sarrerak batez bestekoa baino %9,9 handiagoak izan dira, emakumeenak batez bestekoa baino %13,8 txikiagoak izan direlarik; alegia: emakumeek, batez beste, gizonek baino %23,7 gutxiago kobratu dute 2007an zehar. Zehatz esateko, emakumeen batez besteko soldata batez besteko orokorra baino 180,1 euro txikiagoa izan da, eta gizonena baino 308,3 euro txikiagoa ere.

LANEAN DABILTZAN 16 ETA 64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN DIRU-SARRERAK, GENEROA KONTUAN HARTUTA EAE, 2007

	Sarriren batez bestekoa (€)	Batez bestekoaren gaineko %
Gizonak	1.428,3	109,9
Emakumeak	1.120,0	86,2
Guztira	1.300,1	100

Iturria: LME 2007

Halaber, adin-tarteetan gora egin ahala, diru-sarrerak handituz doazela ikusten da (azken tartean, 60-64 urtekoan, izan ezik). Lanean dabilTZan biztanle gazteenek (16-19 urte) 799,6 euro kobratu dituzte batez beste, hau da, batez besteko orokorra baino %38,5 gutxiago. Hurrengo adin-tartean (20-24 urte), diru-sarriren batez bestekoa 950,5 eurokoa izan da, batez besteko orokorra baino %26,9 txikiagoa, alegia. Egoerarik onena 55-59 urte bitartekoena da, hilean batez beste 1.482,6 euro –batez besteko orokorra baino %14 gehiago– jaso dituzte eta.

LANEAN DABILEN BIZTANLERIAREN DIRU-SARRERAK, ADINA KONTUAN HARTUTA. EAE, 2007

Adina	Batez besteko diru-sarrerak (€)	Batez bestekoaren gaineko %
16-19	799,6	61,5
20-24	950,5	73,1
25-29	1.121,3	86,3
30-34	1.202,2	92,5
35-39	1.303,2	100,2
40-44	1.369,9	105,4
45-49	1.412,0	108,6
50-54	1.456,5	112,0
55-59	1.482,6	114,0
60-64	1.403,7	108,0
Guztira	1.300,1	100

Iturria: LME 2007

III. Jarduera-adarren arabeko datuak

Jarduera-adar bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak aztertuta, etxeko zerbitzua azpimarratu behar dugu, hilean batez beste 571,9 euroko diru-sarrerak, hots, batez besteko orokorra baino 728,2 euro gutxiagokoak, jaso dituzte eta (horrek esan nahi du landun biztanleria guztiak kobratutakoaren %44 jaso dutela). Ostalaritzako langileek hilean 991,8 euro kobratu dituzte



batez beste (orokorra baino 308,3 euro gutxiago), hau da, batez besteko diru-sarrerak baino %23,7 gutxiago.

Era horretan, 404.072 langilek kobratu dute batez bestekoa baino soldata txikiagoa. Soldatarik txikiak dituzten lau adarren artean (etxeko zerbitzuetan, ostalaritzan, beste zerbitzu komertzial batzuetan eta merkataritzan), landun biztanleriaren %25,2k jardun du (244.821 lagunek).

LANEAN DABILTZAN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLEEN DIRU-SARRERAK, SEKTOREAK ETA JARDUERA-ADARRAK BEREIZITA. EAE, 2007

Sektorea eta jardueradarra	Bat. best. diru-sar. (€)	Bat. best. gain. %	Biztanleak	Bat. best. gain. %
Etxeko zerbitzua	571,9	44	24.282	2,5
Ostalaritza	991,8	76,3	50.579	5,2
Beste zerb. komertzial batzuk	1.091,8	84	40.855	4,2
Merkataritza	1.106,6	85,1	129.105	13,3
Beste manuf.-industria batzuk	1.177,7	90,6	22.773	2,3
Nekazaritza	1.218,5	93,7	12.833	1,3
Janari-industria	1.225,3	94,3	14.547	1,5
Enpresentzako zerbitzuak	1.231,9	94,8	94.455	9,7
Papergintza	1.286,4	99	14.643	1,5
Batez bestekoa	1.300,1	100	970.957	100,0
Beste ez-metal. batzuen indus.	1.311,7	100,9	6.323	0,7
Material elektrikoa	1.327,5	102,1	16.578	1,7
Kautxuzko produk. industria	1.332,8	102,5	17.494	1,8
Eraikuntza	1.361,5	104,7	88.671	9,1
Osasuna/gizarte-zerbitzuak	1.402,4	107,9	68.465	7,1
Metalurgia	1.402,6	107,9	82.246	8,5
Garraioak eta komunikazioak	1.403,1	107,9	61.923	6,4
Arrantza	1.422,8	109,4	2.171	0,2
Garraio-materiala	1.423,2	109,5	27.053	2,8
Makinagintza	1.428,3	109,9	37.688	3,9
Energia-ekoizpena	1.461,0	112,4	6.635	0,7
Hezkuntza	1.509,9	116,1	67.295	6,9
Industria petrokimikoa	1.533,0	117,9	10.925	1,1
Administrazio Publikoa	1.603,8	123,4	50.990	5,3
Erauzketa-industria	1.621,7	124,7	1.721	0,2
Finantza-erakundeak	1.639,5	126,1	20.708	2,1

Iturria: 2007ko LME

IV. Diru-sarrera ezberdinak, kontratu motaren arabera

2007ko LMEak kontratu motaren arabera jasotako diru-sarreraren gaineko informazioa ere ematen du. Kontratu mugagabea duten soldatako langileek 1.375,1 euro kobratu dituzte, batez beste, hilean (batez besteko orokorra

baino %5,6 gehiago, hau da, 75 euro gehiago); aldi baterako kontratua dutenek, ordea, 1.033,3 euroko batez besteko soldata jaso dute hilean (orokorra baino %20,5 gutxiago, hots, 266,8 euro gutxiago), eta kontraturik gabe lan egin dutenei batez beste 526,3 euroko soldata ordaindu zaizkie 2007an (orokorra baino %59,5 -773,8 euro- gutxiago).

SOLDATAPEKO LANA DUTEN 16 ETA 64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN DIRU-SARRERAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA. EAE, 2007

Kontratu mota	Batez besteko diru-sarrerak (€)
Mugagabea	1.375,13
Aldi baterakoa	1.033,34
Kontraturik gabe	526,32
Guztira	1.276,82

Iturria: 2007ko LME

2

Europar Batasuneko azkenetakoak, gizarte-babesari dagokionez

Europar Batasunaren eraikuntza irizpide ekonomiko hutsetan oinarritu da orain arte, irizpide sozialak uneoro bazterrean utzirik. Bestalde, estatuek oso tradizio ezberdinak izan dituzte gizarte arloan, historian zehar. Beraz, aurrean dugun Europar Batasun hori gizarte arloko oso errealitate ezberdinak dituzten estatuek osatzen dute.

Horrela, estatu batzuek portzentaje handiagoak gastatzen dituzte gizarte-babesean; horietakoak dira, besteak beste, Suedia (BPGd-aren %31,5), Frantziako Estatua (%31,4) eta Danimarka (%30,2). 27-EBko batez besteko portzentajea %27,1ekoa delarik, EAEko eta Nafarroako gizarte-gastuak urri-urriak dira.

Hego Euskal Herri osoa hartuta, 27-EBrekiko defizita BPGd-aren 8,6 puntukoa izan zen; hau da: HEHn, 27-EBko batez bestekoa baino 6.289,3 milioi euro gutxiago gastatu ziren gizarte-babesean.

EAERI dagokionez, 2005eko ekitaldian (dugun azken informazioa urte horri buruzkoa da), gizarte-babeseko gastua BPGd-aren %19koa izan zen, alegia, 27-EBko batez bestekoa baino 8,1 puntu txikiagoa. Europar Batasuneko batez bestekoarekiko dagoen jauziaz gain, aintzat hartzeko moduko beste datu bat ere agertzen du grafikoak: 15-EBko herrialdeetatik, Irlanda (BPGd-aren %18,2) da **EA**Ekoa baino gizarte-babeseko gastu txikiagoa egin zuen bakarra.


Izan ere, 27-EBko gizarte-babeseko gastuaren pisura heltzeko, EAEn 2005ean benetan gastatu zirenak baino 4.640,4 milioi euro gehiago –%42,6 gehiago– zuzendu beharko ziren gizarte-babesera. Horrela egin balitz, 2005ean, osasunean eta hezkuntzan –hau da, Eusko Jaur-laritzan aurrekontu-zuzkidura handienak dituzten bi sailetan– egindako gastua bikoiztu egin zitekeen.

Nafarroako egoera are larriagoa da, gizarte-babeseko gastua 15-EBko baxuena baita, Irlandakoak ere gainditzen duelarik. Horrela, Nafarroak, non gizarte-babeseko gastua BPGd-aren %16,7koa den, 27-EBko batez bestekoa baino 10,4 puntu gutxiago gastatu zituen BPGd-tik gizarte-babesean.

27-EBko batez besteko BPGd-portzentajera iristeko, Nafarroak 1.648,9 milioi euro gehiago gastatu beharko zituzkeen gizarte-babesean, benetan gastatu zuena baino %62,3 gehiago, alegia. Portzentaje horrek Nafarroan urtealdi horretan osasunean eta hezkuntzan gastatutakoa bikoiztea ahalbidetuko zukeen, besteak beste.

Azpimarratu behar da gizarte-babeseko HEHko gastua **Espainiako Estaturikoa** bera baino txikiagoa dela, Estaturikoa BPGd-aren %21,1 bideratu baitzuen gizarte-babesera. HEHren eta Espainiako Estaturaren arteko aldea BPGd-aren 2,6 puntukoa izan zen, hots, 1.900,7 milioi eurokoa (1.203,1 milioikoa EAerekiko eta 697,6koa Nafarroarekiko).

**GIZARTE-BABESEKO GASTUA (BPGd %).
27 KIDEKO EUROPAR BATASUNA, 2005⁽¹⁾**



Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN

Oro har, gizarte-babeseko defizita kaltegarria da berez, baina, ekonomiaren oraingo motel-tze-egoeran, are garrantzi handiagoa du. Izan ere, biztanleriaren gizarte-premiak azkar areagotzen ari dira langabezia handitu ahala, eta gizarte-babeseko gure gastu-maila ez da premia horiei erantzuteko adinakoa. Adibide bat aipatzearren: HEHn langabezia dauden biztanleen %47,5k bakarrik jasotzen dute kotizaziopeko langabezia-prestazioa⁽²⁾.

Halaber, gizarte-babeseko gastu handiagoak enplegu-maila altuagoa ere ekarriko luke, eta, ondorioz, eskaria sustatu eta ekonomia suspertzen lagunduko luke.

Horregatik guztiagatik, inoiz baino premiazkoagoa da gizarte-babeseko gastua handitzea, bai eta horretarako behar den presio fiskala ere, zerga-iruzurra jazarritz eta azken urteetan PFEZan, Sozietateen gaineko Zergan eta Ondarearen gaineko Zergan egindako erreformak alderantzuz.

(1) Bitxia bada ere, Europar Batasunari buruz argitaratutako azken informazioa 2006ko ekitaldiari dagokiolarik, EAERI eta Nafarroari buruz dugun azken informazioa 2005ekoa da, informazio berriena, logikaz, autonomia-erkidego mailakoak izan beharko lukeen arren.

(2) 2009ko apirileko informazioa.